



LePoKa jokorako arauak

LePoKa (Oka +Trivial jokoetan oinarritua) jarraibideak:

- Partaide bakoitzak fitxa bakarrarekin jokatu du.
- Gelaxka bakoitzak galdera sorta bat dauka:
 - Galdera aukeratzeko dadoa berriro bota. Irtendako zenbakia galdera kopurua baino handiagoa bada, jarraitu kontaktzen berriro hasieratik.
 - Galdera bati egoki erantzunda berriro jolasten jarraituko da. Ez bada ondo erantzuten bertan geratu da, hurrengo buelta arte.
 - Galdera egiten duenak izango du galderen liburuxka eskutan. Norbere buruari ezin zaio galdetu.
- Gelaxka bereziak:
 - **Gelaxka berdeak** (1, 2, 3,...) : Horrelako gelaxkaren batean jauzten bada, "LEPOTIK LEPORA ETA SEGI JOKORA!" esanez hurrengo zenbaki osora pasatu da eta jokatzen jarraituko du, berriro dadoa botata
 - **Gelaxka gorriak** zigorra dute:
 - "E1" gelaxkan jauziez gero, txanda bat itxaron beharko da.
 - "Hasiera" gelaxkan jauziez gero, jokoaren hasierara joan beharko da eta berriro joko hasi.
 - **Gelaxka urdina**: 6.1 gelaxkan jauziez gero ondo erantzuten bada 8.5 gelaxkara pasako da zuzenean
- Partida bukatuko da jokalariren bat "Amaiera" gelaxkara juxtu heltzen denean. Ordu arte aurrera eta atzera ibili beharko da.
- Partidak bi motatakoak izan daitezke. Lehenengo mota da, eserialdi batean hasi eta bukatzen dena. Bigarren mota da ikasturtean zehar partida luzea jokatzea, partida hasi eta astean zehar tarteka partida jokatuz (adibidez LPO klase guztietan azken 10 minutuak)



heziraul.eus

Lan Prestakuntza eta Orientabidea jokoa



Tartanga

Centro Integrado de Formación Profesional
Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratua
Erandio - Bizkaia



Tknika

LANBIDE HEZIKETARAKO BERRIKUNTZA ZENTROA
CENTRO DE INNOVACIÓN PARA LA FORMACIÓN PROFESIONAL

